Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abuztuaren 11, ostirala — 153 — Viernes, a 11 de agosto de 2017

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*0441 LI/2017 Foru Agindua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez pinu beldarraren (Thaumetopoea pityiocampa Schiff) izurria aitortzen den eta horren aurkako jarduerak onura publikotzat ezartzen diren.*

Pinu beldarra (Thaumetopoea pityiocampa Schiff) hostoak galarazten dituen lepidopteroa da, eta pinudietan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain (pinu helduak ahuldu, lehenera etorritakoak eta pinu gazteak kaltetu, etab.), animalietan eta pertsonetan urtikaria eta alergia arazoak sor ditzake.

2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, Landare Osasunari buruzkoak, izurriteen aurkako prebentzioa eta borroka arautzen ditu II. tituluan. Horrela, 14. artikuluan izurria dagoela aitortzen du eta 15. artikuluan administrazioak izurri jakin baten aurkako jarduerak onura publikotzat kalifikatzeko aukera ezartzen du, betiere, artikulu horretan aurreikusitako zirkunstantziaren bat ematen bada.

2012ko irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duenak, xedatzen du aireko tratamenduak autonomi erkidegoko eskudun organoak baimendu ahal izango dituela edo administrazioak berak sustatu.

Tratamenduak landare eta izurrite mota bakoitza tratatzeko baimendutako produktuekin egin beharko dira, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren berariazko onarpena izan beharko dute aireko aplikazioetan erabiltzeko.

1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, eskumen esklusiboa ematen die erakunde horiei bai mendi, aprobetxamendu eta baso zerbitzuen arloan, bai nekazaritza eta baso lurrak zaintzeko eta hobetzeko esparruan (7.a.9), eta baita ere landare osasunaren arloan erakunde komunek emandako arauak garatzeko eta gauzatzeko esparruan (7. b1 artikulua).

Bestalde, 2006ko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendiei buruzkoak, 74.1. artikuluan honako hau ezartzen du: «Baso Administrazioari dagokio Euskadi osorako erakundeek emandako arauak garatzea eta gauzatzea mendietako, enbor biltegietako eta bertatik ateratako produktuetako izurriteen eta gaitzen azterketa, zaintza, kokapen, eragin eremuaren mugaketa eta iraungipenari dagokionez, terrenoen eta bertako ekoizpenen jabetza eta ezaugarriak edozein direla ere».

Halaber, foru arau horretako 76.2. artikuluak hau dio: «Baso Administrazioak basolurren jabeekin, herri erakundeak izan ala pribatuak izan, hitzarmenak sinatu ahal izango ditu baso izurriteak edo gaitzak aurrez zaintzeko edo iraungitzeko lanak egi-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Orden Foral n.º 0441 LI/2017, de 26 de julio, por la que se declara la existencia de la plaga denominada procesionaria del pino (Thaumetopoea pityocampa Schiff) y se establece la calificación de utilidad pública de las actuaciones de lucha contra la misma.*

La procesionaria del pino (Thaumetopoea pityocampa Schiff) es un lepidóptero defoliador que ocasiona daños de consideración en extensiones importantes de pinares (debilitamiento de los pinos adultos, afectación al regenerado y masas jóvenes de pinar, etc.) y también origina urticaria y trastornos alérgicos a las personas y animales.

La ley 43/2002, de 20 de noviembre, de Sanidad Vegetal, regula en su título II la prevención y lucha contra plagas, previendo en su artículo 14 la declaración de su existencia y estableciendo en su artículo 15 la posibilidad de que la administración califique de utilidad pública la lucha contra una determinada plaga cuando concurra alguna de las circunstancias que en dicho artículo se prevén.

Según el artículo 27 del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios, las aplicaciones aéreas podrán ser autorizadas por el órgano competente de la comunidad autónoma donde vayan a realizarse, o ser promovidas por la propia administración.

Los tratamientos se realizarán con productos fitosanitarios autorizados para el cultivo y plaga de que se trate, y aprobados específicamente para aplicación aérea por el Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos» atribuye a éstos competencia exclusiva en materia de «montes, aprovechamientos, servicios forestales y conservación y mejora de suelos agrícolas y forestales» (art. 7.a.9), así como el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de sanidad vegetal (art. 7.b.1).

Por su parte, el artículo 74.1 de la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa establece que «corresponde a la Administración Forestal el desarrollo y ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes del País Vasco, en lo concerniente al estudio, vigilancia, localización, delimitación de zonas atacadas y extinción de plagas y enfermedades de los montes, depósitos forestales y de los productos que de ellos se obtienen, cualesquiera que sean la propiedad y características de los terrenos y de sus producciones».

El artículo 76.2 de dicha norma establece asimismo que «la Administración Forestal podrá formalizar convenios con titulares de terrenos forestales públicos o privados para la ejecución de trabajos de prevención y extinción de plagas o enfermedades

EK\CV GAO-I-2017-05610

teko; eta zuzenean gauzatu ahal izango ditu izurritearen edo gaitzaren kokapenak, eragin mailak edo hedadurak hala eskatzen badute.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Gipuzkoan pinu beldarraren izurria dagoela onartzea eta horren aurkako jarduerak onura publikotzat ezartzea, ondorengo inguruabarrak kontuan hartuta:

— Izurriak eragindako pinudien hedadura handia.

— Izurriak pinudietan eragin ditzakeen kalteak.

— Pinu beldarraren izurriaren aurkako aire tratamenduak egiteko beharra, larrien kaltetutako pinudietan izurriari aurre egiteko.

— Eragile kaltegarriaren hedapena eta ingurumenean eta osasunean eragiten dituen eragin kaltegarriak kontrolatzeko beharra.

— Eragile kaltegarriaren hedadura mugatzeko beharra, kalte ekonomikoak eta paisaiaren degradazioa gutxitzeko.

— Eragindako baso eta naturguneen natura baliabideak kontserbatzeko beharra.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Landa Garapeneko eta Lurralde Orekako foru diputatuak,

XEDATZEN DU

*1. artikulua.*

Aitortzen da pinu beldarraren izurria (Thaumetopoea pityiocampa Schiff) dagoela Gipuzkoako pinudietan, eta horren aurkako jarduerak onura publikotzat ezartzen dira.

*2. artikulua.*

2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, Landare Osasunari buruzkoak, aplikatu behar diren neurri fitosanitarioak ezartzen ditu. Horiek gauzatzeko aparteko baliabideak behar badira eta partikularrek ezin badituzte beraien gain hartu, baso administrazioak gauzatuko ditu.

Bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak egingo ditu aireko tratamendu fitosanitarioak, kasu bakoitzean onartuko den tratamendu planaren arabera -administrazioak berak egin dituenak, 2012ko irailaren 14ko 311/2012 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduketa-esparrua ezartzen duenak, 27.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz-, baldin eta izurriak gainditzen badu baso masen bizitasuna arriskuan jartzen duen infestazio maila.

Lehen aipatutako tratamenduak lehentasunezko guneetan egingo dira, eta kontuan hartuko da Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak egindako prospekzio fitosanitarioetan antzemandako izurriaren intzidentzia maila. Airezko tratamendu planak ezarriko ditu erabiliko diren produktu fitosanitarioak, dosifikazioak, tratamendu datak eta ezarri daitezkeen segurtasun neurriak. Produktu horiek inskribatuta egongo dira produktu eta material fitosanitarioen erregistro ofizialean, 2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, Landare Osasunari buruzkoak, 29. artikuluan ezartzen duenari jarraituz eta baimenduta aireko tratamenduetan erabiltzeko. Garaiz jakinaraziko zaie tratamenduak egiteko asmoa eragindako udalei, nekazaritza ekologikoaren elkarteei, erlezain elkarteei eta nekazaritza sindikatuei eta, halaber, gutxi gorabeherako datak eta udalerri bakoitzean tratamendua jasoko duten guneak adieraziko zaizkie, informazio horren berri eman diezaien tratamenduaren eraginez kaltetuak gerta litezkeen pertsonei.

forestales, pudiendo ejecutarlos directamente, cuando las circunstancias de localización, grado de afección o extensión de la plaga o enfermedad, así lo aconseje».

De acuerdo con lo indicado, resulta necesario declarar la existencia en el territorio Histórico de Gipuzkoa de la plaga denominada procesionaria del pino y establecer la calificación de utilidad pública de la lucha contra la misma, en función de las siguientes circunstancias:

— La gran extensión de pinar afectada por la plaga.

— La intensidad de los daños que la plaga puede provocar en los pinares.

— La necesidad de recurrir a tratamientos aéreos para combatir y reducir las poblaciones de procesionaria en las superficies de pinar más gravemente afectadas.

— La exigencia de controlar la propagación del agente nocivo y de sus perniciosos efectos ambientales y sanitarios.

— La conveniencia de limitar la extensión del agente nocivo para disminuir las pérdidas económicas y la degradación paisajística que produce.

— La necesidad de asegurar la conservación de los recursos naturales de los bosques y espacios naturales afectados.

En consecuencia, esta Diputada Foral de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial,

DISPONE

*Artículo 1.*

Se declara la existencia de la plaga conocida como procesionaria del pino (Thaumetopoea pityocampa Schiff) en superficies forestales con formaciones de pinar del Territorio Histórico de Gipuzkoa y se establece la calificación de utilidad pública de las actuaciones de lucha contra la misma.

*Artículo 2.*

Las medidas fitosanitarias, contempladas en el artículo 18 de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de Sanidad Vegetal, que exijan el uso de medios extraordinarios no asumibles por los particulares, podrán ser ejecutadas por la administración forestal.

En particular, las aplicaciones aéreas de productos fitosanitarios -realizadas por la propia administración conforme a lo dispuesto en el artículo 27.1 del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios- se llevarán a cabo por el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de acuerdo con el plan de aplicación que en cada caso se apruebe, mientras la plaga supere los niveles de infestación que supongan daños graves que comprometan la vitalidad de las masas forestales afectadas.

Los tratamientos señalados en el párrafo anterior se realizarán en las zonas consideradas como prioritarias, teniendo en cuenta el nivel de incidencia de la plaga detectado en las prospecciones fitosanitarias realizadas por el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats, de acuerdo con lo que establezca el plan de aplicación aérea, que determinará también los productos fitosanitarios, las dosificaciones, las fechas del tratamiento y las medidas de seguridad aplicables. Estos productos estarán debidamente inscritos en el Registro oficial de Productos y Material Fitosanitario, de acuerdo con lo establecido en el artículo 29 de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de Sanidad Vegetal y autorizados para su uso en tratamiento aéreo. La realización de los tratamientos se comunicará con suficiente antelación a los ayuntamientos, asociaciones de agricultura ecológica, de apicultores, sindicatos agrarios, etc. de los municipios afectados, indicando las fechas aproximadas y zonas que se deben tratar en cada municipio, a fin de que éstos hagan difusión e informen a los posibles afectados por los tratamientos.

EK\CV GAO-I-2017-05610

Onartzen diren aireko aplikazio planak eta horiei buruzko informazio grafikoa Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamenduko web orrian kontsulta daitezke, zehazki, mendietako ataleko http://www.nekagip.net helbidean.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2017ko uztailaren 26a.—Ainhoa Aizpuru Murua, foru diputatua. (5610)

Los planes de aplicaciones aéreas que se aprueben, junto con la información gráfica correspondiente, podrán consultarse en la página web del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial http://www.nekagip.net, dentro del apartado de montes.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de julio de 2017.—La diputada foral, Ainhoa Aizpuru Murua. (5610)



EK\CV GAO-I-2017-05610